

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

233/2026 Foru Agindua, maiatzaren 4koa. Onartzea Arabako Foru Aldundiaren 2024ko eta 2025eko enplegu eskaintza publikoetako lanpostu honetan karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri bereziak: Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Zeregin Berezien Klasea, zerga ikuskatzaile laguntzailea, A1 sailkapen azpitaldea

Foru Gobernuaren Kontseiluaren abenduaren 23ko 774/2024 Erabakiaren bidez Arabako Foru Aldundiaren 2024ko enplegu eskaintza publikoa onetsi zen. bertan, besteak beste, bi plaza zeuden lanpostu honetan: Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Zeregin Berezien Klasea, zerga ikuskatzaile laguntzailea, A1 sailkapen azpitaldea. Erabaki hori apirilaren 15eko 204/2025 Erabakiak aldatu zuen.

Foru Gobernuaren Kontseiluaren abenduaren 16ko 761/2025 Erabakiaren bidez Arabako Foru Aldundiaren 2025eko enplegu eskaintza publikoa onetsi zen. Bertan, besteak beste, plaza bat zegoen lanpostu honetan: Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Zeregin Berezien Klasea, zerga ikuskatzaile laguntzailea, A1 sailkapen azpitaldea.

Gainera, urriaren 23ko 456/2025 Foru Aginduaren bidez Arabako Foru Aldundiaren 2024ko enplegu eskaintzako hautaketa prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi dira.

Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70.1 artikuluan ezarritakoa betez, bidezkoa da aipatutako plazen hautaketa prozesua deitzea eta hori arautuko duten oinarri espezifikoak onestea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritik, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Arabako Foru Aldundiaren 2024ko eta 2025eko enplegu eskaintza publikoetako lanpostu honetan karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuaren deialdia egitea: Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Zeregin Berezien Klasea, zerga ikuskatzaile laguntzailea, A1 sailkapen azpitaldea.

Bigarrena.- Onestea hautaketa prozesu hori arautuko duten oinarri espezifikoak. I. eranskinean ageri dira.

Hirugarrena.- Deialdiaren gai zerrenda onartzea (II. eranskina).

Laugarrena.- Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, admi-

nistrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz –azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erki-dearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 4a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR



I. ERANSKINA

LANPOSTU HONETAN KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRI BEREZIAK: ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA, ZEREGIN BEREZIEN KLASEA, ZERGA IKUSKATZAILETZA (ZERGA IKUSKATZAILE LAGUNTZAILEA) (kodea: 11224)

1. DEIALDIAREN ARAUAK.

Deialdi hau arautuko du Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izateko 2024ko eta 2025eko enplegu publikoaren eskaintzaren deialdiaren oinarri orokorretan eta oinarri hauetan xedatukoak.

2.- DEIALDIKO PLAZAK.

Administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako zeregin berezien klaseko zerga ikuskatzailetzako 3 plaza (zerga ikuskatzaile laguntzailea), A taldea, A1 (A) azpitaldea. Plazak oposizio lehiaketa bidez hornituko dira; hona:

A.- Txanda ireki orokorra:

Plaza bat:

A.1. Txanda ireki orokorra: Nahitaezko 3. hizkuntza eskakizuna esleituta daukan lanpostu bat.

B.- Barne sustapeneko txanda:

2 plaza, honela banatuta:

B.1. Barne sustapen orokorreko txanda: 2 plaza; hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data mugaeguneratuta ez dagoen bi lanpostu.

3.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, doktore, lizentziadun, gradu, ingeniari edo arkitekto titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo horiek jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki. Titulua atzerrian lortu duten izangaiek tituluaren homologazioaren egiaztatzea eduki beharko dute.

4.- PLAZAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Nahitaezko hizkuntza eskakizuna ezarrita daukan lanpostua esleitzeko, hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da.

Era berean, 3 plazetan B gidabaimena behar da.

5. IZENA EMATEKO TASAK.

Hautaketa prozesuan parte hartu nahi duten pertsonen 31,82 €-ko tasak ordaindu beharko dituzte izena emateko, eskaerak aurkezteko epearen barruan.



6.- HAUTAKETA PROZESUA.

6.1. OPOSIZIO FASEA.

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak.

Oposizio aldian gehienez ere 83 puntu lortu ahalko dira. Oposizio aldia gainditzeko gutxienez 41,5 puntu lortu beharko dira bi proben puntuazioak batuta, betiere horietako bakoitzerako eskatzen diren ezagutzetan gutxieneko puntuazioa lortuta.

6.1.1 Proba teorikoa:

6.1.1.1 Txanda irekia.

Deialdiko gai zerrendako edukiei buruzko galdera sorta bati erantzun beharko zaio. Galdera bakoitzean lau erantzun izango dira aukeran, eta bakarria izango da zuzena.

Ariketaren zuzeneko puntuazioa honako formula hau aplikatzearen emaitza izango da:

Zuzeneko puntuazioa = erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerrearen herena ($P = A - E/3$).

Erantzun zuriak ez dira zigortuko eta, beraz, ez zaizkio asmatutakoaren kopuruari deskontatuko.

Probaren azken emaitza gehienez 40 puntukoa izango da, horixe izanik zuzenean lortu daitekeen gehienekoa. Oposizio fasea gainditzeko, ezagutzaren arloan gutxienez 14 puntu lortu beharko dira.

6.1.1.2 Barne sustapeneko txanda

Deialdiko gai zehatzei buruzko galdetegia erantzun beharko da. Galdera bakoitzeko 4 erantzun eskainiko dira eta bakarria izango da zuzena.

Ariketaren zuzeneko puntuazioa honako formula hau aplikatzearen emaitza izango da:

Zuzeneko puntuazioa = erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerrearen herena ($P = A - E/3$).

Erantzun zuriak ez dira zigortuko eta, beraz, ez zaizkio asmatutakoaren kopuruari deskontatuko.

Probaren azken emaitza gehienez 40 puntukoa izango da, horixe izanik zuzenean lortu daitekeen gehienekoa. Oposizio fasea gainditzeko, ezagutzaren arloan gutxienez 14 puntu lortu beharko dira.

6.1.2 Proba teoriko-praktikoa:

Epaimahaiak ezarritako gehieneko tartean, ariketa praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, erantsitako gai zerrendaren gai espezifikoekin lotuak, eta baliteke hautagaiek ariketaren zati bat edo batzuk irakurri behar izatea.

Ariketa honetan epaimahaiak ariketaren izaera eta edukia kontuan harturik erabakitzen dituen kodeak eta antzekoak edo bestelako material teknikoak bakarrik erabili ahal izango dituzte izangaiek.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna. exposición de estas.



Probaren azken emaitza gehienez 43 puntukoa izango da, eta hori izango da lortu daitekeen zuzeneko gehieneko puntuazioa. Oposizio aldia gainditzeko, gutxienez 15,05 puntu lortu beharko dira ezagutzaren arloan.

6.2 EUSKARAREN EZAGUTZA.

6.2.1 Merezimendu gisa baloratzea.

Derrigortasun datadun hizkuntza eskakizunik esleitura ez duten lanpostuen plazetara sartzeko, euskara jakitea merezimendu moduan baloratuko da, oinarri hauetan ezarritako baremoaren arabera.

Deialdi honen oinarri orokorren 9.3 apartatuan jasotakoarekin bat etorritik, euskararen ezagutza behar bezala alegatu eta egiaztatu ez bada, ez da baloratuko.

6.2.2 Euskararen ezagutza mailaren baremoa.

Euskararen ezagutza baloratzean kontuan edukiko da deitutako plazetako hizkuntza gaitasun nagusia, honako baremo honen arabera:

	Hizkuntza eskakizun nagusia
	3. HE (C1)
Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna	
1. HE (B1)	5 puntu
2. HE (B2)	6,25 puntu
3. HE (C1)	11 puntu

Egiaztatutako hizkuntza eskakizunik altuena baino ez da baloratuko

6.3. LEHIAKETA FASEA.

Lehiaketa fasean hautagaiek alegatutako eta egiaztatutako esperientzia baloratuko da, merezimendu baremo honen arabera:

6.3.1 Txanda irekia:

Deialdi honen oinarri orokorren 9.2.2 atalean aipatzen diren erakunde eta organismoetan izandako esperientzia profesionalagatik gehienez 17 puntu lortu ahalko dira, hain zuzen ere 0,0058 puntu A taldeko A1 (A) azpitaldeko eskaletan edo azpieskaletan zerga ikuskatzailetzan, zerga kudeaketan edo administrazioarekiko diru erreklamazioak ebatzen denetarik harreman juridikoekin lanean emandako egun bakoitzeko, salbuespen hauekin: zerbitzu zibilen edo merkataritzako zerbitzuen errentamendu kontratuen, beken eta prestakuntza praktiken bidez emandako zerbitzuak.



Ondorio horietarako, baliokidetzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, hargatik eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Egindako lanaldia gorabehera baloratuko dira zerbitzu horiek.

6.3.2 Barne sustapeneko txanda:

Deialdi honen oinarri orokorren 9.2.2 atalean aipatzen diren erakunde eta organismoetan izandako esperientzia profesionalagatik gehienez 17 puntu lortu ahalko dira, hain zuzen ere 0,0058 puntu A2 azpitaldeko azpieskaletan denetarik harreman juridikoekin lanean emandako egun bakoitzeko, eta 0,0116 puntu A1 azpitaldeko azpieskaletan denetarik harreman juridikoekin lanean emandako egun bakoitzeko, salbuespen hauekin: zerbitzu zibilen edo merkataritzako zerbitzuen errentamendu kontratuen, beken eta prestakuntza praktiken bidez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, baliokidetzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, hargatik eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Egindako lanaldia gorabehera baloratuko dira zerbitzu horiek.

7. LEHENTASUN KLAUSULA APLIKATZEA.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak, 21.1.a) artikuluan ezartzen duena aplikatzeko, ez da aplikatuko artikulua horretan berdinketa hausteko ezarritako klausula, deitutako plazen eskalan, azpieskalan, klasean eta espezialitatean ez baitago emakume gutxiegi..



II. ERANSKINA

GAI KOMUNAK

Tema 1. Espainiako Konstituzioa (I). Atariko titulua. I. titulua: oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10.-55. artikulua).

Tema 2. Espainiako Konstituzioa (II). VIII. titulua: Estatuaren lurralde antolaketa (137-158 artikulua).

Tema 3. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10-12 artikulua).

Tema 4. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (II). II. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoko botereak (24-39 artikulua).

Tema 5. 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, autonomia erkidegoko erakunde autonomoen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanena. Atariko titulua eta I. titulua. Autonomia Erkidego osorako erakundeak eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeak eskumenak.

Tema 6. 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoa erakunde antolamenduarena.

Tema 7. Arabako Lurralde Historikoko Toki Administrazioa (I). 10/2023 Foru Araua, martxoaren 15ekoa, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzkoa. Atariko titulua, I. titulua: Foru Gobernuak.

Tema 8. Arabako Lurralde Historikoko Toki Administrazioa (II). 10/2023 Foru Araua, martxoaren 15ekoa, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzkoa. II. titulua: Foru Aldundiaren eta Batzar Nagusien arteko harremanak.

Tema 9. Arabako Lurralde Historikoko Toki Administrazioa (III). 10/2023 Foru Araua, martxoaren 15ekoa, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzkoa. VI. titulua. Foru Aldundiaren administrazioa.

Tema 10. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa (40/2015 Legea): administrazio publikoen kide anitzeko organoak (15-18 art.). Abstentzioa eta errekusazioa (23-24 artikulua). Administrazio publikoen ondare erantzukizuna (32-37 artikulua). Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa (38-46bis artikulua). Hitzarmenak (47-53 artikulua).

Tema 11. Administrazio prozedura. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Atariko titulua, I. titulua eta II. titulua: 1-20 artikulua). III. titulua (53. artikulua).

Tema 12. Administrazio prozedura. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Ebazteko betebeharrak (21-23 art.). Administrazio isiltasuna (24-25 art.). Epemugak eta epeak (29. eta 30. artikulua). Administrazio egintzen betekizunak (34-36 artikulua). Egintzen efikazia (37-39 artikulua). Prozedura hasteko moduak (54. art.). Administrazioak ofizioz hastea (58-62 art.). Administrazio espedienteak (70. artikulua). Prozedura amaitzea (84-86 artikulua). Ebazpena (88-90 artikulua). Prozedura iraungitzea (95. artikulua). Gora jotzeko errekurtsoa (121. eta 122. artikulua). Aukerako berraztertze errekurtsoa (123. eta 124. art.).



Tema 13. Sektore Publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Legearen xedea eta aplikazio eremua (1-3 artikulua). Kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak (4-11 artikulua). Sektore publikoko kontratuak (12-23 artikulua). Kontratu administratiboak eta kontratu pribatuak (24-27 artikulua).

Tema 14. Datu pertsonalen babesa eta eskubide digitalen bermea: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa: Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Datuen babesaren printzipioak (4-10 artikulua). Pertsonen eskubideak (11-18 artikulua).

Tema 15. Gardentasuna. 1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena. Xedea, helburuak eta aplikazio eremu subjektiboa (1-3 artikulua). Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren Gardentasuna (17-40 artikulua).

Tema 16. Berdintasun politikak. Printzipio orokorrak eta tutoretza. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriak: 3-22 artikulua) Euskal Administrazio publikoen eremuko neurriak (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena: 19-25 artikulua).

Tema 17. Enplegu publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena: Langile motak (8-13. artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 artikulua). Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide kodea (52-54 artikulua). Zerbitzu harremana hartzea eta galtzea (55-68 artikulua).

Tema 18. Enplegu publikoa (II). 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: Administrazio egoerak (136-160 artikulua). Hizkuntza normalizazioa (187-190 artikulua).

GAI ZEHATZAK

FINANTZA ETA ZERGA ZUZENBIDEA

19. gaia.- Estatuaren eta EAEren arteko ekonomia ituna (I). aurrekariak eta bilakaera historikoa. Izaera juridikoa eta 1978ko Konstituzioan duen lege oinarria. Lurralde historikoen eskumenak eta Estatuaren eskumenak. Printzipio orokorrak. Harmonizazio arauak eta lankidetzaren printzipioak. Kudeaketa arauak eta prozedura. Finantza harremanetako arau orokorrak. Kupoaren zenbatekoa zehazteko metodoa. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordea. Arbitraje Batzordearen Arautegia.

20. gaia.- Estatuaren eta EAEren arteko ekonomia ituna (II). Araudi aplikagarria, ordainarazteko eskumena, ikuskatzeko eskumena eta lotura puntuak zerga figura hauetan: pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga; sozietateen gaineko zerga; ez-egoiliarren gaineko zerga, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga; energia nukleoelektrikoaren ekoizpenaren ondoriozko hondakin erradiaktiboak eta gastatutako erregai nuklearra sortzearen gaineko zerga; gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradiaktiboak instalazio zentralizatuaren biltegiratzearen gaineko zerga; gasa, petrolio eta kondentsatuak erauztearen balioaren gaineko zerga; kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga; ondarearen gaineko zerga; oinordetzen eta dohaintzen



gaineko zerga; balio erantsiaren gaineko zerga; ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga; zerga bereziak; aseguru primen gaineko zerga; berotegi efektua eragiten duten gas fluoratuen gaineko zerga; finantza transakzioen gaineko zerga; zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga; zabortegetan hondakinak gordetzearen eta hondakinak erraustearen edo batera erraustearen gaineko zerga. Zeharkako beste zerga batzuk; jokoaren gaineko zergak; tasa eta ordainarazpen parafiskalak; tokiko zergak.

21. gaia.- 3/1989 Legea, maiatzaren 30ekoa, zerga harmonizazio, koordinazio eta lankidetzarena. Aplikazio eremua. Harmonizazioa eta zerga bakoitzaren alderdi harmonizatzaileak. Zentralizazioa zerga betebeharrak betetzean. Euskadiko Zergak Koordinatzeko Organoa. Iruzuraren Aurkako Euskadiko Batzordea.

22. gaia.- Zerga zuzenbidea: kontzeptua eta edukia. Zerga antolamenduaren xedapen orokorrak: printzipio orokorrak. Araudiaren iturriak: zergei buruzko foru arauaren erreserba, presa fiskaleko dekretu arauemilea. Zerga arauen aplikazioa. Interpretazioa, kalifikazioa eta integrazioa: zerga arauen interpretazioa, kalifikazioa, analogiaren debekua, elusioaren aurkako klausula, simulazioa.

23. gaia.- Zergak. Zergen kontzeptua, motak eta helburuak. Legeen eta zergen arteko harremanak Zerga betebeharrak. Zerga administrazioaren betebeharrak eta eginbeharrak. Zergapekoen eskubideak. Elkarren laguntza. Zergapekoak. Zergapeko motak. Oinordekoak. Zerga erantzuleak. Jarduteko gaitasuna zerga ordenan. Zerga egoitza.

24. gaia.- Zerga betebehar nagusia eta konturako ordainketak egiteko betebeharra kuantifikatzeko elementuak. Zerga oinarria zehazteko metodoak: zuzeneko zenbatespena, zenbatespen objektiboa eta zeharkako zenbatespena. Likidazio oinarria. Karga tasa. Zerga kuota. Balioak egiaztatzea. Zerga zorra: xedapen orokorrak, zerga zorraren iraungitzea. Ordainketa. Preskripzioa. Zerga zorra azkentzeko beste modu batzuk. Zerga kredituaren bermeak.

25. gaia.- Zergen aplikazioa. Zerga prozedurak. Zergapekoei argibideak ematea eta laguntzea. Gizartearen laguntza zergen aplikazioan. Zergen arloan garrantzia duten datuak isilpean eduki beharra. Zerga betebeharrak nabarmen betetzen ez diren egoeren publizitatea. Zerga jardunei eta prozedurei buruzko arau komunak. Zerga prozeduren faseak. Zerga likidazioak. Ebazteko betebeharra eta ebazteko epeak. Proba. Jakinarazpenak. Zergapekoen etxean sartzeta. Salaketa publikoa. Egiaztatzeko eta ikertzeko ahala eta eginkizunak.

26. gaia.- Zerga kudeaketako jarduerak eta prozedurak: xedapen orokorrak. Zerga kudeaketako prozedurak: autolikidazio bidez hasitako prozedura eta aitorten bidez hasitako prozedura. Autolikidazio edo aitorten bidez hasitako prozeduren xedapen komunak. Ofizios hasitako prozedura zerga zorra likidatzeko. Balioak egiaztatzeko prozedura. Egiaztatze mugatuko prozedura.

27. gaia.- Zerga ikuskatzailtza (I). Funtzioak eta ahalmenak. Ikuskapeneko jarduketak eta prozedurak. Ikuskatze funtzioak eta ahalmenak. Interesdunaren agiriak aztertzea. Finketan sartzeta eta aztertzea. Beste ikuskatze funtzio batzuk. Zerga ikuskatzeari kasu egiteko betebeharra. Zergapekoen esku hartzea eta ordezkaritza. Ikuskaritzaren jardueren dokumentazioa: jakinarazpenak, eginbideak, txostenak eta aktak. Akta motak eta haiek izapidetzea. Ikuskatzailtzaren jardunen lekua eta denbora.

28. gaia.- Zerga ikuskatzailtza (II). Ikuskapen prozedurak. Egiaztatzeko eta ikertzeko prozedura: arau orokorrak. Ikuskatze jardunen hasiera, garapena eta amaiera. Egiaztatzeko eta ikertzeko prozeduren iraupen epeen inguruko arauak. Kautelazko neurriak. Arau bereziak: zeharkako zenbatespena, erantzukizun solidarioaren adierazpena, zerga baterakuntzako araubidean edo entitate taldeen araubidean tributatzaren duten entitateekiko jardunak. Egiaztatze mugatuko prozedura. Zergapekoa bertaratu gabeko erregularizazio prozedura. Informazioa eskuratzeko jarduketak.



Elusioaren aurkako klausula aplikatzeko prozedura. Balioespen jardunak. Betebehar formalak egiaztatze jardunak. Egiaztatze mugatuko prozedura.

29. gaia.- Bilketako jarduerak eta prozedurak: xedapen orokorrak. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea. Zerga zorrak geroratzeko kontua. Premiamendu prozedura. Prozeduraren arau orokorrak. Premiamendu prozedura hasia eta garatzea. Premiamendu prozedura amaitzea. Ondasunen bahitura eta bahitutako ondasunen besterentzea. Erantzule solidarioen, subsidiarioen eta oinordekoen aurreko prozedura.

30. gaia.- Zerga arloan zehatzeko ahalaren printzipioak. Zerga arloko arau hauste eta zehapenen gaineko xedapen orokorrak. Zerga arloko arau hauste eta zehapenen subjektu erantzuleak. Zerga arloko arau hauste eta zehapenen kontzeptua eta motak. Zehapenak mailakatzeko irizpideak eta zehapenen murrizketa. Diruzko zerga zehapenak kuantifikatzea. Zerga arloko arau hauste eta zehapenen erantzukizuna azkentzea. Diruz bestelako zehapenak ezartzea.

31. gaia.- Zerga arloko arau hausteen eta zehapenen tipologia. Zerga gaitako zehapen prozedura: prozeduraren hasiera, instrukzioa eta amaiera. Prozedura laburtua. Ikuskatze prozeduretako baten ondorioz hasitako zehapen prozedurak bereiz izapidetzean aplikatzekoak diren arau bereziak. Zehapenen kontrako errekurtsoak.

32. gaia.- Herri Ogasunaren kontrako delituak. Herri Ogasunaren kontrako delituen tipo penalen deskribapena. Zergak aplikatzeko jarduketak eta prozedurak Herri Ogasunaren aurkako delitu kasuetan. Erantzukizun zibilarren ordainarazpena Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik. Ondarea ikertzeko eskumenak Herri Ogasunaren kontrako delituen prozesuetan. Zerga eremua ukitzen duten Estatuaren laguntzak berreskuratzea.

33. gaia.- Berrikuspina administrazio bidean: arau komunak. Berrikuspen prozedura bereziak. Zuzenbide osoz deusezak diren egintzak berrikusteko prozedura. Egintza deuseztagarrien kaltegarritasun deklarazioa. Lizentzia ezeztatzea. Akatsak zuzentzea. Bidegabeko sarrerak itzultzea. Berraztertze errekurtsoa: xedea eta izaera. Berraztertze errekurtsoa hasi, izapidetu eta ebaztea.

34. gaia.- Erreklamazio ekonomiko-administratiboak. Erreklamazio ekonomiko-administratiboaren eremua. Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen antolaketa eta eskumenak. Erreklamazio ekonomiko-administratiboaren eskubidea eta interesa dutenak. Prozedura ekonomiko-administratiboa: arau orokorrak, hasiera, izapidetzea, berrikuspenaren hedapena, amaiera eta ebazpena. Deuseztatzeko errekurtsoa. Beteazpenaren aurkako errekurtsoa. Berrikusteko errekurtso berezia.

35. gaia.- Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga (I). Zergaren izaera eta aplikazio eremua. Zerga gaia. Zergadunak. Zerga oinarria: kontzeptua eta zehaztapena. Lanaren etekinak. Lanaren etekinak. Jarduera ekonomikoaren etekinak, kapitalaren etekinak: higiezinena eta higigarriena. Ondare irabaziak eta galerak. Errenten egozpena eta eratzikitzea. Araubide bereziak. Sozietateen gaineko zergaren pean dauden sozietate zibiletako bazkideen araubidea. Lurralde komuneko araudian xedatutakoaren babesean desegin eta likidatutako sozietate zibiletako bazkideen araubidea.

36. gaia.- Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga (II). Lehenetsuneko partaidetzen zerga araubidea. Aldi egozketa. Balorazio arau bereziak: errenta zenbatetsien balorazioa, lotutako eragiketak eta gauzazko errentak. Errenta motak. Errenten integrazioa eta konpentsazioa. Likidazio oinarria: orokorra eta aurrezkiarena. Kuota osoa.

37. gaia.- Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga (III). Kenkari orokorra. Familia kenkariak eta kenkari pertsonalak. Desgaitasuna duen pertsona baten ondare babestura egindako ekarpenengatik aplika daitekeen kenkaria. Ohiko etxebizitzaren kenkariak. Jarduera ekonomikoak sustatzeko



kenkariak. Kenkaria dohaintzengatik. Beste kenkari batzuk. Sustapena langileek enpresan partaidetza edukitzeagatik.

38. gaia.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (IV). Kuota diferentziala. Zerga zorra. Baterako zerga ordainketa. Zergaldia eta sortzapena. Autolikidazioak. Konturako ordainketak. Behin-behineko likidazioak. Betebehar formalak. Ondare erantzukizuna eta zehapen araubidea. Jurisdikzio ordena.

39. gaia.- Pertsona fisikoen ondarearen gaineko zerga. Izaera, xedea eta aplikazio eremua. Zerga gaia eta salbuetsitako ondasunak eta eskubideak: jarduera ekonomikoei lotutako ondasunak eta zenbait partaidetza salbuesteko betekizunak. Subjektu pasiboa. Ondareak esleitzea eta egotzea. Zerga oinarria eta likidazio oinarria. Sortzapena. Zerga zorra zehaztea. Zergaren kudeaketa. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten jaraunspenen zerga araubidea. Arau hausteak eta zehapenak. Jurisdikzio ordena.

40. gaia.- Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Izaera, xedea eta aplikazio eremua. Elementu pertsonalak: zergadunak, Espainiako lurraldeko egoiliarra ez izatea, errentak banakatzea, erantzuleak, ordezkariak, zerga egoitza. Zergapean egotea: zerga gaia, Arabako lurraldean lortutako errentak, salbuetsitako errentak, zergapean egoteko erak. Establezimendu iraunkorren bitartez lortutako errentak. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia. Errenta eratzikipenaren araubideko erakundeak.

41. gaia.- Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga. Zergaren izaera eta xedea. Zergaren araudia eta ordainarazpena. Zerga gaia, salbuespenak, zergaldia eta sortzapena. Zergadunak. Zerga oinarria, zerga kuota eta konturako ordainketak. Zehapen araubidea.

42. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (I). Izaera eta aplikazio eremua. Zerga egitatea. Zergadunak. Salbuespenak. Mikroenpresa, enpresa txikia eta enpresa ertaina: zer diren. Ondare sozietatea: zer den. Zerga oinarria: zuzenketak gastuetan. Amortizazioak. Ondare elementuen balio narriaduraren ondoriozko galera: kaudimengabezia eta balio galerak. Finantza merkataritzako funtsaren zerga tratamendua, eta bizitza baliagarri mugagabea duten zenbait ukiezinena. Hornidurak. Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenak. Agortze faktorea. Aurrezki kutxen ongintza eta gizarte ekintza. Gastu kenezinak. Gastuei buruzko arau bereziak.

43. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (II). Zerga oinarria: zuzenketak diru sarreretan; zuzenketak balioespen arauetan eta abusuaren aurkako neurriak; zuzenketak emaitzaren aplikazioan; aldi egozpenari eta kontabilitateko inskripzioari buruzko arau komunak; zerga oinarri negatiboaren konpentsazioa. Sozietateen gaineko zergaren pean dauden sozietate zibiletako bazkideen araubidea.

44. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (III). Zerga zorra: karga tasa; kuota osoa; kuota likidoa; kuota efektiboa; gutxieneko tributazioa. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria. Beste kenkari batzuk: kenkaria aktibo finko berrietan egindako inbertsioengatik; kenkaria ikerketa eta garapen jarduerengatik; kenkaria teknologia berrikuntzako jarduerengatik; garapen iraunkorra, ingurumenaren zainntza eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzeko proiektuekin lotutako inbertsioengatik eta gastuengatik egin daitekeen kenkaria; kenkaria enplegua sortzeagatik; kenkari horien arau komunak. Kultura sustatzeko pizgarriak. Konturako ordainketen kenkaria.

45. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (IV). Zerga araubide bereziak: definizioa. Interes ekonomikoko taldeak, Espainiakoak eta Europakoak. Aldi baterako enpresa elkarteak. Arrisku kapitaleko sozietateak eta funtsak. Inbertsio kolektiboko erakundeak. Balore jakin batzuk edukitzeko entitateak.

46. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (V). Zerga araubide bereziak. Ondoko hauen araubide berezia: bat-egiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, aktibo eta pasibo osoaren lagapenak, eta



Europako sozietate baten edo Europako sozietate kooperatibo baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea.

47. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (VI). Zerga araubide bereziak. Zerga baterakuntzako araubidea: talde fiskalaren, entitate nagusiaren eta menpeko sozietateen definizioa; sozietateak talde fiskalean sartzea edo irtetea; zeharkako nagusitasunaren zehaztapena; zerga baterakuntzako araubidearen aplikazioa; zerga baterakuntzako araubidea galtzea berekin dakarten arrazoiak; zerga baterakuntzako araubidea galtzearen eta talde fiskala desagertzearen ondorioak. Higiezinaren errentamenduaren jarduera kualifikatua egiten duten entitateen araubidea.

48. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (VII). Zergaldia eta zergaren sortzapena. Zergaren kudeaketa. Erakundeen indizea. Kontabilitateko betebeharrak. Kontabilizatu gabeko ondasunak eta eskubideak. Borondatezko birbalorazioak. Aitorpena, autolikidazioa eta behin-behineko likidazioa. Autolikidazioa aurkeztean egin behar diren hautapenak. Ofiziozko itzulketa. Konturako ordainketak. Egiaztatze ahalmenak: Administrazioaren ahalmenak zerga oinarria zehazteko, ikuskatzaitetzaren eskumena. Jurisdikzio ordena.

49. gaia.- Kooperatiben zerga araubidea. Kooperatiba babestuak, kooperatiba bereziki babestuak eta babestu gabeko kooperatibak. Kooperatiba bereziki babestuaren izaera galtzea. Zerga oinarria zehaztea. Zerga zorra. Bazkideen ekarpenen eguneratzea. Atxikipenak eta konturako beste ordainketak. Kooperatibetako bazkideen araubidea. Kooperatibei aitortutako zerga onurak. Kreditu kooperatibak. Kooperatiba elkartearen araubidea. Onura publikoko eta gizarte ekimeneko kooperatibak.

50. gaia.- Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidea eta mezenasgorako zerga pizgarriak (I). Objektua, aplikazio eremua eta ordezkio araudia. Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubide berezia. Araubide berezia sozietateen gaineko zergan. Araudi aplikagarria. Salbuetsitako errentak. Ustiapen ekonomiko salbuetsiak. Zerga oinarria zehaztea. Balorazio-arauak. Karga tasa. Kontabilitateko betebeharrak. Atxikipenik aplikatzen ez zaizen errentak. Aitortze bidezko betebeharra. Zerga araubide bereziaren aplikazioa. Toki zergak.

51. gaia.- Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidea eta mezenasgorako zerga pizgarriak (II). Mezenasgoaren erakunde onuradunak. Emari, dohaintza, ekarpen eta prestazioen zerga araubidea. Kenkariak pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan. Bestelako mezenasgo moduen zerga araubidea. Lehenetsuneko mezenasgo jardueri eta interes publiko bereziko gertakariak babesteko programei aplikatu ahal zaizkien zerga onurak.

52. gaia.- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga (I). Izaera, objektua, aplikazio eremua eta ordainarazpena. Ohiko bizilekua. Kalifikazioaren printzipioa eta zergaren lotura. Zerga egitatea. Zergadunak eta erantzuleak. Zerga oinarria: arau orokorrak; "mortis causa" eskuratzetarako arau bereziak; bizien arteko kostu gabeko eskualdaketetarako arau bereziak; bizi asegurugetarako arau bereziak.

53. gaia.- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga (II). Balioak egiaztatzea. Likidazio oinarria. Zerga zorra. Sortzapena eta preskripzioa. Betebehar formalak: komisarioaren betebeharrak testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren pean dauden jaraunspenetan; agintarien, funtzionarioen eta partikularren eginbeharrak; aurkeztu ezaren ondorioak. Zergaren kudeaketa: arau orokorrak; aurkezteko epeak, luzapena eta etetea; dokumentuak aurkezteko tokia; eskumen kontuak; izapidetzea eta likidazioa; zergaren ordainketa. Ordainketa geroratzea eta zatikitzea. Arau hausteak eta zehapenak.

54. gaia.- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga (III). Arau bereziak Ordezpena. Fideikomisoak. Ondasun erreserba. Beste erakunde batzuk. Banaketa eta esleipen soberakinak. Gozamen ahaldu



edo testamentu ahalorde bidez deferitzen diren jaraunspenak. Testamentu ahalordea eta gozamen ahalduaren ahalmenak erabiltzea. Jaraunspen bidezko eskuratzeen metaketa. Likidazio arauak itzulketetan. Alargunaren senipartea ordaintzea eta ondasunak jabari osoarekin ematea. Jaraunspena edo legatua arbuizatzea eta uko egitea. Dohaintza bereziak. Dohaintzen eta kostu gabeko beste eskualdaketen metaketa. Bizi aseguruengatik jasotako diru kopuruen metaketa.

55. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (I). Izaera eta aplikazio eremua. BEZaren eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren arteko muga. Ondasunak ematea eta zerbitzuak ematea: zerga gaia, zergapean ez dauden eragiketak, salbuespenak, gauzatzeko lekua, sortzapena, zerga oinarria –arau orokorra eta arau bereziak– eta subjektu pasiboa. Europar Batasunaren barruko ondasun eskuratzeak: zerga gaia, zergapean ez egotea, salbuespenak, gauzatzeko tokiak, sortzapena, zerga oinarria eta subjektu pasiboa.

56. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (II). Ondasunen inportazioa: zerga gaia, salbuespenak, sortzapena, zerga oinarria eta subjektu pasiboa. Barne salbuespenak. Esportazioei, esportazioekin parekatzen diren eragiketei, salbuetsitako eremuei eta etendura araubideei buruzko salbuespenak. Zerga egitatea gertatu den tokiak.

57. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (III). Zerga jasanaraztea eta zerga tasak. Kenkariak: kenkari eskubiderako betekizunak eta haren mugak. Kenkari araubidea jardura desberdinduko sektoreetan. Hainbanaketa erregela. Kenkarien erregularizazioa. Itzulketak; zerga aplikatzen den lurraldean egoitzarik ez duten zenbait enpresaburu edo profesionalentzako itzulketak. Subjektu pasiboen betebeharrak. Zergaren kudeaketa. Sarrera etetea. Arau hausteak eta zehapenak.

58. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (IV). Araubide bereziak: arau orokorrak; araubide erraztua; nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzen araubide berezia; erakunde taldeen araubide berezia; erabilitako ondasunen, arte objektuen, antzinako gauzen eta bilduma gaien araubide berezia; bidaia agentzien araubide berezia; baliokidetasun errekarguaren araubide berezia; kutxa irizpidearen araubide berezia; urruneko salmenten eta Batasunaren barruko ondasun emate eta zerbitzugintza batzuen araubide bereziak.

59. gaia.- Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (I). Izaera, edukia eta aplikazio eremua. Ondare eskualdaketak: arau orokorrak eta bereziak eta zergapean ez dauden kasuak. Subjektu pasiboa, zerga oinarria, likidazio oinarria eta zerga kuota. Sozietate eragiketak: zerga gaia, subjektu pasiboa, zerga oinarria eta zerga kuota.

60. gaia.- Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (II). Egintza juridiko dokumentatuak: notario dokumentuak, merkataritzako dokumentuak eta administrazio dokumentuak. Hiru kargetarako xedapen komunak. Zerga onurak eta kuota hobariak. Balioak egiaztatzea. Sortzapena eta preskripzioa. Betebehar formalak. Zergaren kudeaketa eta likidazioa. Itzulketak. Zehapen araubidea.

61. gaia.- Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (III). Arabako Lurralde Historikoan dauden landa eta hiri ondasun higiezinak balioesteko arau zehatzak. Hiri eta landa ondasun higiezinaren kontzeptua. Eraikitako azalera eta azalera erabilgarria. Balioespen lokabea. Honako hauen balioespena: Gasteizko udal mugartean dauden landa ondasun higiezinak, hiri ondasun higiezinak, babes ofizialeko etxebizitzak, lonjak, merkataritza lokalak, sotoak eta solairuarteak, bertako toki entitate txikietan edo barreiaturikoetan ez badaude. Ondasun higiezinaren identifikazioa.

62. gaia.- Zerga bereziak (I). Izaera. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak: sailkapena. Aplikatzeko lurralde eremua. Kontzeptuak. Zerga egitatea. Zergapean ez dauden kasuak. Sortzapena. Subjektu pasiboak eta erantzuleak. Salbuespenak. Itzulketak. Etendura araubidearen amaiera. Zerga oinarriak eta tasak. Jasanarazpena. Fabrikazioa, transformazioa eta edukitzea. Batasunaren barruko



zirkulazioa. Irregularitasunak EBren barruko zirkulazioan. Kudeaketa arau orokorrak. Arau hausteak eta zehapenak.

63. gaia.- Zerga bereziak (II). Alkoholen eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien xedapen komunak: definizioak. Salbuespenak. Itzulketak. Kanaria uharteei buruzko xedapen bereziak. Garagardoaren gaineko zerga: eremu objektiboa, zerga oinarria eta zerga tasak. Ardoaren eta edari hartutuen gaineko zerga: eremu objektiboa, sortzapena, zerga oinarria eta zerga tasak.

64. gaia.- Zerga bereziak (III). Tarteko produktuen zerga: eremu objektiboa; zergapetu gabeko kasuak; zerga oinarria; zerga tasa; arau hausteak eta zehapenak. Alkoholen eta edari deribatuen gaineko zerga: eremu objektiboa; zerga oinarria; zerga tasa; artisau destilazioaren araubidea; uztagileen araubidea; salbuespenak; itzulketak; kudeaketa arau bereziak; arau hausteak eta zehapenak.

65. gaia.- Zerga bereziak (IV). Hidrokarburoen gaineko zerga: eremu objektiboa; zergapetu gabeko kasuak; zerga oinarria; kontzeptua eta definizioak; zerga tasak; biokarburante eta bioerregaietarako zerga tasak; salbuespenak; itzulketak; erabilera profesionaleko gasolioarengatik itzulketa partziala; kudeaketa arau bereziak; erabilera debekatuak eta mugatuak; arau hausteak eta zehapenak.

66. gaia.- Zerga bereziak (V). Tabakogaien gaineko zerga: kontzeptua. Eremu objektiboa. Zergapean ez dauden kasuak. Zerga oinarria eta tasak. Salbuespenak. Itzulketak. Kudeaketa arau bereziak. Zenbait garraibideren gaineko zerga: zerga gaia; salbuespenak, itzulketak eta murrizketak; subjektu pasiboak; sortzapena; zerga oinarria; zerga tasa; kuotako kenkaria; zergaren likidazioa eta ordainketa; arau hausteak eta zehapenak. Ikatzen gaineko zerga. Elektrizitatearen gaineko zerga berezia.

67. gaia.- Energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zerga. Energia nuklearra sortzearen ondorioz erregai nuklear gastatua eta hondakin erradioaktiboak ekoiztearen gaineko zerga. Erregai nuklear gastatua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatuetan gordetzearen gaineko zerga. Berotegi efektua eragiten duten gas fluoratuen gaineko zerga. Gas, petrolio eta kondentsatuen erauzketa balioaren gaineko zerga. Izaera, eremu objektiboa eta lurralde eremua. Zerga egitatea. Zergadunak. Zerga oinarria. Zergaldia eta sortzapena. Karga eskala. Kuota osoa. Likidazioa eta ordainketa. Arau hausteak eta zehapenak.

68. gaia.- Aseguru primen gaineko zerga. Izaera, espazio eremua eta zerga ordainarazteko eskumenak. Subjektu pasiboa, zerga gaia, salbuespenak, zergaren sortzapena, zerga oinarria eta zerga tasa. Zergaren kudeaketa. Zerga ordezkariaren izendapena eta horren berri ematea zerga administrazioari.

69. gaia.- Jokoaren gaineko zerga. Izaera, aplikazio eremua eta ordainarazteko eskumena. Zerga egitatea eta salbuespenak. Subjektu pasiboak. Erantzuleak. Zerga oinarria. Zerga tasa orokorra. Joko mota ezberdinei aplikatzekoa zaien zerga tasa. Sortzapena, betebeharrak formalak eta zergaren ordainketa. Zehapenak. Joko jardueren gaineko zerga. Izaera, aplikazio eremua eta ordainarazteko eskumena. Zerga gaia eta zergapetu gabeko kasuak. Sortzapena. Zergadunak. Erantzuleak. Zerga oinarria. Karga tasak eta kuota osoa. Likidazioa eta ordainketa. Arau hausteak eta zehapenak.

70. gaia.- Toki ogasunen finantzaketa (I). zuzenbide pribatuko diru sarrerak, zerga propioak, itundutako eta itundu gabeko zergetako eta gainerako diru sarrera publikoetako parte-hartzea, dirulaguntzak, prezio publikoak eta kreditu eragiketak. Udalen gaineko erakundeak eta udalerria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeak. Ondasun higiezinaren gaineko zerga: izaera eta zerga gaia, salbuespenak, subjektu pasiboa, zerga oinarria, kuota, sortzapena eta zergaldia, zergaren kudeaketa.



71. gaia.- Toki ogasunen finantzaketa (II). Ondoko zerga hauen izaera, zerga gaia, salbuespenak, hobariak, subjektu pasiboa, kuota, sortzapena, zergaldia eta kudeaketa: jarduera ekonomikoen gaineko zerga; trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga; eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga; hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga.

BETEBEHAR FORMALAK ETA INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRAK

72. gaia.- Fakturazio betebeharren arautegia. Eragiketak dokumentatu beharra balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako. Faktura egin beharra; faktura egin beharraren salbuespenak; faktura erraztuak. Fakturak egitearen kasuak. Fakturen betekizunak. Fakturen bidalketa. Fakturak eta beste agiri batzuk gordetzea. Berehalako informazio hornidurako sistema. TicketBAI betebeharra garatzen duen arautegia. Dokumentazio beharrak beste tributu batzuen ondorioetarako eta beste eremu batzuetan.

73. gaia.- Arabako Foru Aldundiko zergadunen errolda bakarra. Europar Batasunaren barruko eragileen erregistroa; balio erantsiaren gaineko zergaren hileroko itzulketen erregistroa; fabrikazioaren gaineko zerga berezien lurralde erregistroa; alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren edo hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundearen erregistroa; borondatezko ordezkarien erregistroa; aldi baterako enpresa elkartearen erregistroa; sozietateen gaineko zergako entitateen aurkibidea.

74. gaia.- Herri Ogasunari informazioa emateko betebeharra (I). Hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitorpena. Zergapekoak. Eragiketen urteroko aitorpena aurkezteko betebeharren salbuespenak. Aitorpenaren edukia. Aitorpena betetzea. Egozpenerako irizpideak. Kudeaketa arauak. Arau hausteen zehaztapena. Kanaria uharteetan, Ceutan eta Melillan egindako eragiketak.

75. gaia.- Herri Ogasunari informazioa emateko betebeharra (II). EBren barruko eragiketen laburpen aitorpena. Laburpen aitorpena aurkeztu beharra duten subjektu pasiboak. Laburpen aitorpenaren edukia. 349 ereduak aurkezteko lekua eta epea. Ordenagailu bidez zuzenean irakur daitezkeen 349 ereduaren euskarriaren identifikazioa eta horiek aurkezteko modua.

76. gaia.- Herri Ogasunari informazioa emateko betebeharra (III). Banku kontuetan baimendutako pertsonen berri eman beharra. Finantza-aktiboekin egiten diren zenbait eragiketaren berri eman beharra. Gizarte aurreikuspeneko hainbat tresnaren berri eman beharra. Kreditu erakundeek laguntzeko dituzten betebeharra. Ondasun higiezinekin egiten diren finantza eragiketen berri eman beharra. Zerga egoitzaren aitorpena, kasu jakin batzuetan ez-egoiliarren izaera egiaztatzeko helburuaz. Finantza kontuen urteko informazio aitorpena elkarrekiko laguntzaren esparruan. Estatu Batuetako pertsona jakin batzuen finantza kontuen urteko informazio aitorpena. Lotutako entitate eta eragiketen informazio eta dokumentazioko herrialdez herrialdeko informazio aitorpena. Hiri finken alokairuaren berri eman beharra.

77. gaia.- Herri Ogasunari informazioa emateko betebeharra (IV). Atzerrian dauden ondasunen eta eskubideen berri eman beharra: atzerrian kokatutako finantza entitateetako kontuak; atzerrian gordailatu, kudeatu edo lortutako balore, eskubide, aseguru eta errentak; atzerrian dauden ondasun higiezinak eta horien gaineko eskubideak; atzerrian dauden edo atzerriko herrialdeetako erregistroetan matrikulatuta edo jasota dauden ondasun higikorak eta horien gaineko eskubideak.

MERKATARITZA ZUZENBIDEA

78. gaia.- 22/2015 Legea, uztailaren 20koa, kontu auditoretzarena. Aplikazio eremua, objektua, araubide juridikoa eta definizioak. Kontu auditoretza: kontu auditoretzaren motak. Kontu auditoretza



interes publikoko entitateetan. Gainbegiratze publikoa: gainbegiratze eginkizuna; Kontabilitateko eta Kontu Auditoretzako Institutua.

79. gaia.- Kapital sozietateak (I). Xedapen orokorrak: kapital sozietatea; izena, nazionalitatea eta egoitza; pertsona bakarreko sozietatea; sozietate taldeak. Kapital sozietateen eraketa: eraketa eskritura; erregistroko inskripzioa; sozietate anonimoaren segidako eraketa; sozietatearen deuseztasuna. Bazkideen ekarpenak: diruz bestelako ekarpenen balioespena sozietate anonimoan; erantzukizuna diruz bestelako ekarpenengatik; ordainketa. Prestazio osagarriak.

80. gaia.- Kapital sozietateak (II). Sozietateko partaidetzak eta akzioak: bazkidearen eskubideak; bazkideen erregistro liburua eta partaidetzak eskualdatzeko araubidea erantzukizun mugatuko sozietateetan; ordezkaritza eta akzioen eskualdatzea; sozietateko partaidetzen edo akzioen gaineko jabekidetzak eta eskubide errealak; norbere partaidetza eta akzioekiko negozioak. Batzar Orokorra: batzarraren eskumena; batzar motak eta deialdia; batzar unibertsala; bertaritzea, ordezkaritza eta botoa; batzarraren eraketa eta erabakiak hartzea; batzarraren akta eta erabakien aurka egitea.

81. gaia.- Kapital sozietateak (III). Sozietatearen administrazioa. Urteko kontuak: formulazioa eta edukia; memoria; kudeaketa txostena; urteko kontuak egiaztatzea; urteko kontuak onartzea, gordailatzea eta argitaratzea. Sozietatearen estatutuen aldakuntza: sozietate kapitalaren gehikuntza eta murrizketa; aldi bereko kapital murrizketa eta gehikuntza. Bazkideak banantzea eta kanpo uztea. Desegitea eta likidazioa. Enpresa berria sozietatea. Europako sozietate anonimoa. Sozietate anonimo kotizatuak.

82. gaia.- Merkataritza sozietateen eraldaketa. 5/2023 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa; horren bidez Europar Batasunak merkataritza sozietateen egiturazko aldaketaz emandako zuzentarauen transposizioa egiten da. Atariko xedapenak; eraldaketa; bat-egitea; zatitzea; aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorra; Batasunaren barruko mugaz gaindiko egitura aldaketak; Batasunetik kanpoko mugaz gaindiko egitura aldaketak.

83. gaia.- Hartzekodunen konkurtsoa (I). Konkurtsoaren deklarazioa eta konkurtsoaren administrazioa. Konkurtsoaren deklarazioaren ondorioak: zordunarengan dituen ondorioak; hartzekodunengan dituen ondorioak; kontratuetan dituen ondorioak; masa aktiboari kalte egiten dioten egintzetan dituen ondorioak. Konkurtsoaren administratzaileen txostena eta konkurtsoa masa aktibo eta pasiboa zehaztea. Txostena argitaratzea eta haren aurka egitea.

84. gaia.- Hartzekodunen konkurtsoa (II). Hitzarmen edo likidazio faseak: hitzarmen fasea; likidazio fasea. Konkurtsoaren kalifikazioa: kalifikazio atala. Konkurtsoaren amaiera eta berriraketa. Prozesu arau orokorrak, prozedura laburtuarenak eta errekurso sistemarenak. Epaketaz kanpoko ordaintze akordioa. Zerga kredituak konkurtso prozeduretan.

KONTABILITATEA

85. gaia.- Kontabilitate plan orokorra. Lehenengo zatia: Kontabilitatearen esparru kontzeptuala. Kontabilitate printzipioak. Urteko kontuen elementuak. Urteko kontuetako elementuak kontabilitatean erregistratu edo aitortzeko irizpideak. Balioespen irizpideak.

86. gaia.- Erregistro eta balioespen arauak (I). Kontabilitatearen esparru kontzeptualaren garapena. Ibilgetu materiala: ibilgetu materialari buruzko arau bereziak. Higiezinak inbertsioak. Ibilgetu ukiezina: ibilgetu ukiezinari buruzko arau bereziak. Aktibo finkoak eta besterendu daitezkeen elementu taldeak, saltzeko mantenduak. Errentamenduak eta antzeko beste eragiketa batzuk. Finantza tresnak. Izakinak. Atzerriko dirua. Balio erantsiaren gaineko zerga, Kanaria uharteetako zeharkako zerga orokorra eta zeharkako beste zerga batzuk. Mozkinen gaineko zerga.



87. gaia.- Erregistro eta balioespen arauak (II). Salmenten eta zerbitzu emateen bidezko diru sarrerak. Hornidurak eta kontingentziak. Pasiboak langileen epe luzerako ordainsariengatik. Ondare tresnetan oinarritutako ordainketak egiten diren eragiketak. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak. Negozioen konbinazioak. Baterako negozioak. Eragiketak taldeko enpresen artean. Kontabilitate irizpideen aldaketak, kontabilitate akatsak eta zenbatespenak. Ekitaldia itxi eta geroako egitateak.

88. gaia.- Urteko kontuak egiteko arauak. Arau orokorrak. Urteko kontuen eredu normalak. Balantzea. Galera eta irabazien kontua. ondare garbiaren aldaketen egoera, Onartutako sarrera eta gastuen egoera. Ondare garbiaren aldaketen guztizko egoera. Eskudiru fluxuen egoera. Memoria: memoriaren edukia. Urteko kontuen eredu laburtuak.

89. gaia.- Kontuen taula. Definizioak eta kontabilitate erlazioak. 1. taldea: Oinarrizko finantzaketa. 2. taldea: Aktibo finkoa. 3. taldea: Izakinak. 4. taldea: Hartzekodunak eta zordunak merkataritza eragiketengatik. 5. taldea: Finantza kontuak. 6. taldea: Erosketak eta gastuak. 7. taldea: Salmentak eta diru sarrerak. 8. taldea: Ondare garbiari egotzitako gastuak. 9. taldea: Ondare garbiari egotzitako sarrerak.

FINANTZETAKO MATEMATIKA

90. gaia.- Kapitalizazio bakuna: hasierako kapitala, interesa, denbora eta interes tasa kalkulatzeko. Batez besteko tasa kapitalizazio bakunean. Kapitalen baliokidetasuna. Interes tasaren zatiketa. Tasa baliokideak. Kapital bat baino gehiagoren interesa. Kapitalizazio konposatua: hasierako kapitala, denbora eta tasa kalkulatzeko. Batez besteko tasa kapitalizazio konposatuan. Kapitalen baliokidetasuna. Kapitalizazio konposatua zatikizko aldietarako. Interpolazio lineala eta hitzarmen lineala. Zuzeneko interpolazioa eta alderantzizko interpolazioa. Kapitalizazio bakunaren eta kapitalizazio konposatuaren alderaketa. Errentak: errenta konstanteak, errenta aldakorak, urteko epea eta maiztasun tasa, maiztasun epea eta urteko tasa.